

Akordioak eta urardotzea

Hona behin eta berriro entzuten dugun mantra: “Politika akordioetara iristea da”. Nire uste apalean, kalte izugarria egiten du. Izatekotan, honako honetan bihurtu da politika: printzipioen salerosketarako azoka. Hauteskunde-programak erretzeko paperaren parekoak dira jada; pare bat bileretako zupadetan desagertzen dira: “A-rekin akordioa erdiesteko gure proposamen batzuk alde batera utzi behar izan ditugu...”. Nork gehiago emango, nork gehiago urardotu agindutakoa akordioaren aitzakian.

Politika adostasunak bilatzea ere bada, baina ez edonola. Akordioak onak izan daitezke, edo politikaren erabateko antitesia eta balioen ukatzea. Politika herritarrei proposamen bat egitea da, norabide bat ezartzea, eta botere publikoetatik herria norabide horretan eramaten ahalegintzea. Helburuei lotutako jardun ideologikoa da.

Akordioetara iristea kontu positibo gisa saltzen digute beti, baina zure idearioaren beste muturrean dagoenarekin bada ere. Alabaina, alderdien interesak eta bozka eman dieten herritarren interesak ez datoz beti bat. Akordioen oinarria ez da izaten programatikoa edo helburu jakin batzuen mendekoa. Xedea agintea eskuratzea edo mantentzea da. Gauzak horrela, urardotzaileetan urardotzaileena aterako da garaile. Margaret Thatcherrek honakoa zioen: “Kontsentsua sineste, printzipio, balio eta politika guztiak alde batera uztea da. Alegia, inork ez du horretan sinesten eta inork ez dio trabarik jartzen”.

Legegintzaldi honetan EAJ eta PSE-EEren arteko akordioa batetik, eta, batez ere EAJ eta PPren artekoak izan dira hautsak gehien harrotu dituztenak. Baina kontua sinplea da, PPk EAJ behar du aurrekontuak aurrera ateratzeko, baina baita EAJk PP ere Eusko Jaurlaritzan. Erabaki hori aspaldi hartuta dago.



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

EAJri aitortu behar zaio saltzeko oso zaila dena salgarri egiteko eta, batik bat, komunikatzeko abilezia. Jakin baitakite Espainiako 78ko erregimenaren hedabideek –baita 78 aurrekoek ere– ez diotela egur berezirik emango Espainiako errailean doan artean, akordioak PSOE eta PPrekin egiten dituen artean. Esango nuke, ordea, gero eta zailago egiten zaiola posizio horri eustea

Hortik aurrerakoa makillajea eta itxurakeria da. Nola azaldu boto-emaleei printzipioz norbere balio eta interesen aurkakoa den hori babestea? Izanaren eta portaeraren arteko disonantzia hori nola justifikatu? Zer izan daiteke salgarria? Orain kupoa, orain inbertsioak, orain zerga-erreforma, orain pentsioak. Azken-azken unera arte negoziazioan dagoena salgarritasun hori da. Zer eman elkarri bere publikoari azalpenak emateko? Zergatik ez da esaten elkar behar dutela eta listo? Hori baita abiapuntua. Nik zu. Zuk ni.

EAJri aitortu behar zaio saltzeko oso zaila dena salgarri egiteko eta, batik bat, komunikatzeko abilezia. Euskal agenda eta euskal *agenda*. Jeltzaleentzat oso posizio erosoak izan da orain arte. Jakin baitakite Espainiako 78ko erregimenaren hedabideek –baita 78 aurrekoek ere– ez diotela egur berezirik emango Espainiako errailean doan artean, akordioak PSOE eta PPrekin egiten dituen artean. Esango nuke, ordea, gero eta zailago egiten zaiola posizio horri eustea.

Batetik, Espainiako Estatuan badelako alderdiek akordio –baita eskubide– guztien gainetik defendatuko duten zerbait: Espainiaren batasuna. Horretan ez dago negoziatziorako aukerarik. EAJrentzat ia ezinezkoa da dagoeneko PPri ematen dion babesaren justifikatzea. Erraietara arte ustelduta egoteaz gain, Espainia autoritario eta gupidagabearen ordezkaria da eta Katalunian egiten ari direnak ez du izenik. Nire irudiko, akordioa zurrizko asmotan pentsioen kontua baliatzea agerikoegi geratu da eta euskal jendartearen sektore zabal bat trikimailuz jabetu da. Agian boto-emaleak horrelako gauzez konturatzaren hasi gara, edo agian ez. Edo egia izango da Winston Churchillek zioen hura, hau da, herri bakoitzak merezi dituen agintariak dituela. ■